

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1 positibo berri
2.289 positibo guztira*
*Hernanin 64 Astigarragan 21

1.604 hildako

10 UCIn EAEn

NAFARROAN

3 positibo berri
5.382 positibo guztira
4 UCIn

Sendatuak EAEn: 17.866. Naf: 8.919



Festarik gabe ere, kulturarik ez da faltako

HERNANI
SAN JOANAK

2-3



Begirada 20 urte atzera, Kronika sortu zutenekin

URUMEA
KRONIKAK 20 URTE

6-7



«Ez dago San Joanik eta beraz arduraz jokatu behar dugu»

HERNANI
ALKATEA

4-5



Orain 20 urte bezala, gorritu egiten dira bizkarrak

2000 urteko ekainaren 23an argitaratu zuen aurreneko alea Kronikak, gaur 20 urte. Eta ordutik, eskutik egin dute bidea Kronikak eta San Joanek. Urte guzti hauetako jaiak laburbildu ditugu, hainbat argazkitan.

8-15

20 urteko bidean, komertzio ugari Kronikaren bidelagun

HERNANI
URTEURRENA

16



Bertso afaria egingo dute gaur gazteek, Kontrakantxan

HERNANI
GAZTETXEA

2

Ekainak 20, larunbata

10.00-14.00 / 18.00-22.00 **Chillida Lekura bisitak**
12.00 eta 20.00. **Iceberg dantza ikuskizuna**

Ekainak 23, asteartea

11.45. **Alkatearen agurra**
12.00. Omenezko **suziriak** auzoetan
17.00/19.30 **EPA TXIKI. Demode Quartet**
20.00 **Musika Banda eta Txistularien Banda** auzoetan

Kulturaz
gozatu
elkar
zaindu



Hernaniko
Udala

Ekainak 24, asteazkena

09.00 **Diana** kaleetan, auzoetan
12.00 **Musika Banda eta Txistularien Banda** auzoetan
18.30 **Bertso jaialdia**. Atsegindegin
20.00/21.15 **KILIMAK/XABI SOLANO MAIZA**
Musika. Kiroldegiko pistan

Ekainak 25, osteguna

20.00/21.15 **IÑAKI SALVADOR, GARBINE INSAUSTI & NAHIA VALLE**
Musika. Kiroldegiko pistan

* AFORO MUGATUA ETA SEGURTASUN NEURRIAK BERMATUTA

'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' aurtengo jaietan

Bizi izan dugun pandemiak, Hernanin hain maiteak diren San Joan jaietan ere eragina izan du. Hala ere, Hernaniko Udala eta Jai Batzordea elkarlanean ibili dira, hainbat kultur ekintza antolatuz herritarrek kulturaz goza dezaten.

HERNANI SAN JOANAK

Jakinaren gainean gara, aurtengo San Joan jaiak, ez direla ohiko moduan ospatuko, Koronabirusak eragindako osasun alarma dela eta. Hori horrela, Hernaniko Udalak, erabaki zuen, «San Joan jaiak bertan behera uztea», aglomerazioak saihestu eta herritarren segurtasuna bermatzeko.

Ohiko San Joan jaiak egin ez arren, beste modu batera egiteko proposamenari eutsi dio Udalak Jai Batzordearekin batera, eta aurrera eraman du, hainbat ekintza planteatuz. Gainera, *Kulturaz gozatu, elkar zaindu* egitasmoaren inguruan antolatutako ikuskizunetarako azken sarrerak gelditzen dira, Biterin jaso daitezke gaur eguerdiko 13:30ak arte, doakoak dira.

Gaur, San Joan bezpera

Gaur, goizeko 11:45etan, Hernaniko alkatearen agurra entzuteko aukera izango da, eta zuzenean ere jarraitu daiteke, Streaming bidez www.hernani.eus webgunean, eta FM: 91,8 Mhz irrati frekuentzian. Behin hau amaituta, omenezko suziriak jaurtiko dira auzoetan, eta bertan izango dira txistulariak, Hernaniko Musika Banda eta Musika eskolako musikariak, festei hasiera alai ematen.

Arratsaldean, *Epa Txiki* eta *Demode Quarteten* musika emanaldiak eskainiko dira, biak kiroldegiko pistan, arratsaldeko 20:00etan hasita. Eta Hernaniko Udalak, herritarrei dei egin die, gaurko egunez, «etxeetako bal-

koietan apaingarriak jartzeko, kaleek kolorea har dezaten».

Diana, Bertso jaialdia eta musika emanaldia, biharko Bihar, goizetik esnatuko ditu Dianak herritarrek, auzo eta kaleetatik barrena ibiliko baitira, goizeko 09:00etatik aurrera. 12:00etan berriz, Hernaniko Musika Banda eta Txistularien Musika Banda kaleetan barrena ibiliko dira.

Arratsalderako berriz, Hernaniko Bertso eskolak, zita jarri du, Bertso jaialdia egiteko, 18:30etan hasita, Atsegindegina. Bertan izango dira: Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu, eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea Eli Pagola izango da.

Gau aldera, bi musika emanaldi eskainiko dira kiroldegiko pistan, lehenengoa 20:00etan izango da, Gazteako Maketa Lehiaketa irabazi duen Kilimak taldearen eskutik. Bigarren emanaldia berriz, Esne Beltza taldeko Xabi Solanok eskainiko du, 21:15etan hasita.

«Herritarrentzat mezua» Udalak eta Jai Batzordeak

«Garai berezia bizitzea egokitu zaigu aurten. Covid-19ak gure bizitza hankaz gora jarri du eta, besteak beste, urtero ilusioz espero ditugun San Joanak ere gogor jo ditu pandemiak. Jakina denez aurten ezingo ditugu gure festak bizi eta gozatu nahiko genukeen moduan, baina ez dugu etsi, eta kulturak gure herrian merezi duen lekua, beste modu batean bermatzeko lan haundia



Gaur eta bihar, Hernaniko Txistulari Banda ibiliko da herriko kale eta auzoetan zehar.

SAN JOANAK 2020

GAUR: 11:45, Alkatearen agurra. Zuzenean jarraitu daiteke *Streaming* bidez www.hernani.eus webgunean edo FM: 91,8 Mhz irrati frekuentzian.

12:00, Omenezko suziriak auzoetan. Bertan izango dira: Txistulari Banda, Musika Banda eta Musika Eskolako musikariak.

17:00 eta 19:30, Epa Txiki. Demode Quartet. Emanaldia familientzat kiroldegiko pistan. Bi saio izango dira.

20:00, Hernaniko Musika Banda

eta Txistularien Banda, Hernaniko kaleetan zehar, auzoetan...

Balkoiak apaintzeko deia ere luzatu du Udalak, ekainaren 23rako.

BIHAR: 09:00, Diana kaleetan zehar, auzoetan...

12:00, Hernaniko Musika Banda eta Txistularien Banda kaleetan, auzoetan...

18:30, Bertso jaialdia, bertan izango dira: Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi. Gai-jar-

tzailea: Eli Pagola. Atsegindegina. Bertso Eskolak antolatutako emanaldia izango da.

20:00 eta 21:15etan, Kilimak eta Xabi Solano. Kiroldegiko pistan izango dira musika emanaldi hauek.

ETZI, osteguna: 12:00, Munduko Musikak eskainiko da Atsegindegina, Amherrek antolatuta.

20:00 eta 21:15etan, Bitartean/Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Valle. Kiroldegiko pistan.

egin dugu. Jai Batzordeak eta Udalak elkarlanean antolatu ditugun kultur jarduerak hernaniarron bizipoza eta ilusioa berreskuratzen laguntzea nahiko genuke. Aldi berean, ordea, Covid-19aren eraginez hil diren pertsona guztiak eta haien senitartekoak izan ditugu gogoan. Baita, urtero bezala, gure herrian egon ezin daitezkeen hernaniarrak ere. Egun hauetan ondo pasatzea opa dizuegu. Eskertzekoa da herritarrok orain arte izandako jarrera ardurasua eta horrela jarrai dezagun, arduraz eta elkar zainduz».

San Joan sua debekatuta, aurten

San Joanetako ekintza garrantzitsuenetako bat da San Joan sua, baina aurtengo egoera medio, jaiak bertan behera gelditu dira, eta San Joan sua ere ez da egingo, «jende pilaketak saihesteko». Hala adierazi zuen

Hernaniko Udalak behintzat, «herritarren segurtasuna bermatzeko aldera, San Joan gauean egin ohi diren suak debekatzea erabaki dugu. Hortaz, ez dugu egingo Plazan egin ohi dugun sua, eta debekatuta daude herritarrek auzoetan egin ohi dituztenak ere».

Astigarragako Udalak ere debekatu egin du San Joan sua egitea, honakoa azalduz: «Covid-19aren ondorioz bizi dugun egoera honetan, aforoa eta gomendatutako distantzia soziala kontrolatzeko zailtasunak direla eta, Udalak, aurtengo San Joan bezperako sua eta ohiko ekitaldiak bertan behera uzteko erabakia hartu du, pena handiz. Beraz, egun horretarako ez da ezer berezirik antolatuko herrian».

Kontrakantxak ere, egitaraua

Hainbat ekintza antolatu ditu

Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxeak, San Joan festak gogorarazteko. Gaurkoan, bertso afaria egingo dute, arratsaldeko 20:00etan hasita. Bertsotan, Andoni Rekondo eta Aitor Bizkarra izango dira.

Bihar berriz, mus txapelketa izango da eguneko ekintza, arratsaldeko 17:00etan hasita. Egunean bertan eman beharko da izena, eta guztirita 16 bikote egongo dira. Jakinarazi dute bikoteko 5 euro ordaindu beharko direla.

Gainera, bi sari banatuko dira, lehenengo postua lortzen duenak, ardo botila, 2 kamixeta, Otsahien garagardoa eta gazta eramango ditu etxera. Bigarren saridunak berriz, Otsahien garagardoa eta 2 kamixeta lortuko ditu.

Hilaren 26ean berriz, *Madarikatuon biltzarra* izeneko poesia errezitaldia eskainiko da, gaueko 22:00etan.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK**

«Aurtengo San Joanak ez dira betikoak izango»

Hernaniko Udalak, Jai Batzordearekin batera, hainbat bilera egin ditu, San Joanen norabidea «zuzentzeko» asmotan. Izan ere, Covid-19ak sortutako osasun alarma egoerak, «hankaz gora utzi ditu herri zein hirietako festa eta ekitaldiak».

Hala ere, Jai Batzordeak jakinarazi du, hasieratik izan zutela argi «ez zirela ohiko San Joanak egingo, baina bagenekien zer-bait egin behar genuela herri-tarrentzat, egitarau alternatibo bat edo». Hori erabakitzeke bilera mordoa egin dituzte hila-beteotan, Udalak eta Jai Batzordeak, «beti sintonia onean egia esan. Hala ere, gauzak ulertzeko modu desberdinak daude beti, denok geneukan argi San Joan jaiak bere horretan ez zirela egingo, baina kontzeptuan zegoen zalantza. Ez genekien San Joan xuabe batzuk egin edo festak bertan behera utzi eta egitarau alternatibo bat sortu». Eta azkenean, San Joanen egitarau alternatibo bat egitea erabaki zuten, «bilerako jende gehiena zegoen zerbait kulturala egitearen alde, beraz hori erabaki genuen».

Jai Batzordekoen iritziz, «kolpe haundia» jasango dute Hernaniko tabernariak, «hauez gain, San Joanetan lan egiten duten guzti horiek, musikariak,

ferianteak... Askotan pentsatzen dugu, herriko jaiak mundu guztiarentzako ospakizuna direla, baina ez da horrela izaten, askok festetatik lortzen baitute urte osoan martxan jarraitzeko dirua».

Gainera, «jaiak beti lotzen dira festarekin, eta urte hau arraroa izaten ari denez eta San Joanak bere horretan egiterik ez daukagunez, kultur egitarau txiki bat egitea proposatu genuen, kulturala eta kontrolatua. Batez ere San Joan egunean zerbait sinbolikoa egiteko. Horregatik izango dira kaleetan zehar txistulariak, musika bandak, kontzertu txikiak, bertso saioen bat... ».

Jai Batzordeak eta Udalak egindako bileretan, proposamen «asko» egon zirela azaldu du Jai Batzordeak, baina «hasieran ez zegoen ezagutza haundirik, ez genekien zein ziren bete beharreko neurri minimoak. Hori horrela, proposatu ziren ekintza asko atzera bota ziren, ezin zirelako gauzatu, segurtasuna ez zelako bermatzen».

Publikoak eserita egon ezin duen ekitaldi guztiak bota dituzte atzera, hala nola, «kirol ekintzak, kaleetako txarangak, balkoietako bertso saioak, soka-muturra...

Neurri prebentiboak, kultur jardueretan

Egoerak behartuta eta herritarren segurtasuna bermatze aldera, hainbat neurri prebentibo ezarri ditu Hernaniko Udalak Jai Batzordearekin batera kultur ekintzetan. «Lehenik eta



Aurreko asteburuan izan zen 'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' egitasmoaren lehen ekintza, Chillida Lekuko irekieran.

behin, garrantzitsuena, aforoa kontrolatuko dugu, hori gainera oso garrantzitsua da. Distantziak ere mantendu beharko dira, minimo 2 metrokoak izanik. Maskarilak erabiliko dira, desinfektanteak egongo dira... Egia esan, oinarritzko neurri hauekin, ez dugu arazorik espero, aldiro gainera jendearen pilaketa saihesten saiatuko gara egiten diren ekitaldi guztietan behintzat».

Udan ere, kultur ekintzak

Jai Batzordeak azaldu du, ez dela epe finkorik zehaztu udako kultur ekintzei dagokienez, «Hernaniko Udalak aurreko urteetan ere egin izan ditu Ave Maria parkean kultur ekintzak, eta aurrean ere, Udalak horri eusteko apustua egin du, beti segurtasun neurriak kontutan hartuz, noski». Beraz, datozen hilabeteetan joango dira iragarritzen, udako kultur ekintzei buruzko berriak. **K**

«Udan ere kultur ekintzak egiteko asmoa dago»

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



JUAN JOSE TOMASENA ALBISTUR

- Goian bego -



ELUR TXORI ELKARTEA



Hernanin, 2020ko ekainaren 23an



V. URTEURRENA

Marilo Pascual Garcia

2015eko ekainaren 23an hil zen, 43 urterekin

- Goian bego -

Joan zara, eta utzi diguzu
zure irrifarra, zure lasaitasuna, zure ausardia.
Beti maiteko zaitugu.

PASCUAL GARCIA FAMILIA



Hernanin, 2020ko ekainaren 23an

Altzueta sagardotegiak

Udaran ateak zabalduko ditu

Terrazako giroan, menu zabalagoa aukeran eta Euskal Sagardoa botilan.

Gozatu Altzueta beste modu batera!



*San
Joanetan
egunero
zuekin!*

altzueta
SAGARDOA SIDRA NATURAL

HERNANI

altzuetasagardotegia.com

Erreserbak:

943 55 15 02 edo altzueta@altzuetasagardotegia.com

«Aurten ez dago San Joan festarik, eta ahaztu egin behar ditugu festak, arduraz jokatzuz»

Xabier Lertxundi alkateak mezu argi hori helarazi nahi dio bertako eta kanpoko jendeari. «Ez dago San Joanetako programarik», lehendabiziko aldiz 1939garren urtetik, COVID-19aren eraginez.

HERNANI SAN JOANAK

Urte bat eta egun batzuk igaro dira Xabier Lertxundi Hernaniko alkatetzara iritsi zela, baina San Joan festarik ez dela egongo iragartzen duen lehendabiziko alkatea izan da zoritxarrez. Inork ez du egin nahi horrelako iragarpenik; hala ere, Lertxundik argi izan du erabaki zuzenena eta arduratsuen dela San Joanak bertan behera uztea.

«Ez dago San Joanik». Hori da argi utzi nahi dutena Udaletik. «Ez dago San Joanetako programarik», nahiz eta ekitaldi kultural solte batzuk egongo diren. Udalak eta Jai Batzordeak erabaki zuten martxan jartzea, «ikuski delako kulturaren behar bat dugula herritarrek, horrenbeste aste programazio kulturalik eduki gabe egon ondoren. Oso kaltetua izan den sektorea bultzatzeko modu bat da», dio alkateak.

«Egun horiek 'normalak' izatea nahi dugu»

Hala ere, mezua argia da Xabier Lertxundiren aldetik. «Aurten San Joanetaz ahaztu egin behar dugu. Hori da argi eduki behar dugun mezua, eta helarazi nahi duguna». Mezu hori, gainera, ez da bakarrik hernaniarrei zuzendua. «Kanpotik etortzen direnei ere esan behar diegu ez dagoela San Joanik, eta ez etortzeko. Egun horiek *normalak* izango dira, edo izatea nahi dugu Hernanin».

Kontsulta eginda, Hernaniko artxibategian begiratu du Txuso Gomez arduradunak, eta historiaren pasarte batzuk argitu ditu San Joanen inguruan:

«1939garren urteaz geroztik, San Joanak ez dira inoiz bertan behera geratu. 1936ko Gerraren testuinguruan, 1937an eta 1938an ez ziren egin (1936koak bai, gerra uztailearen 18an hasi baitzen, eta 1939ko apirilaren lehen bukatu). Beraz, 1939garren urtetik beti izan dira, nahiz eta 1939, 1940 eta hurrengoak hala-moduzkoak izan».

Gomezen esanetan, «egia da 1969an, eta batez ere 1973an, gatazka politikoa zela eta, dena prest zegoenean, garaiko Jai Batzordean mahai gainean jarri zela bertan behara uztea, baina azkenean egin ziren». Hori bai, ez zen giro oso «sanorik» izan: «ekitaldi batzuen kontrako boikotak, txarangaren bat edo beste ez zen atera... Baina bai, San Joanak izan ziren».

Oraingo honetan, alkateak dioen bezala, «inoiz pentsatzen ez genuena» gertatu da COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz. Pandemiak gogor jo du, eta festetan ere horrek eragin zuzena izan du.

«Orain arte jendeak jokatu duen bezala, arduraz jokatzeko eskatzen dugu»

Antolatu diren ekitaldi kultural horien jarraipena, beste ikuskitan batzuekin, udaren antolatuko da. Lertxundik jendeari arduraz jokatzeko eskatzen dio. «Orain arte jendeak jokatu duen bezala jarraitzea eskatzen dugu, arduraz. Hori da garrantzitsua».

Alkateak dioen bezala, «pena ikaragarriarekin», baina hartu beharreko neurria izan da. «Zein egoeratan gauden kontuan hartu behar da». *Festak garrantzitsuak dira herri batentzako?* gal-



Xabier Lertxundi, Hernaniko alkatea, Udaleko bulegoan.

1969an, eta batez ere 1973an, gatazka politikoa zela eta ez zen giro «sanorik» izan, baina bai festak

detzen du Lertxundik, eta berak erantzun. «Bai, inportanteak dira, eta jendea ospatzeko gogoarekin egoten da, urte osoan zehar zain, gero disfrutatzen. Herria ere erabat aldatzen da, eta giro animikoa aldatu egiten da. Baina orain beste ardura bat daukagu, osasuna bermatzearena, eta ezin dugu arriskatu».

Beste urte batzuk eta San Joan festak berriz ere etorriko direla aipatzen du, San Joanez «asko» disfrutatzen duen Lertxundik. «Alertak uzten baldin badu, aurrerago badaude beste festa batzuk urtean zehar. Euskal jaiak etorriko dira eta beste jai batzuk, egoerak uzten badigu disfrutatuko ditugunak».

«Pena haundiarekin, baina hartu beharreko erabakia» dela argi du Xabier Lertxundi Hernaniko alkateak

«Sua ere ez da egingo; zerbait egiteak jendea erakarriko du, eta gure helburua da jende pilaketarik ez egotea» Inongo zalantzarik gabe hartutako erabakia da bertan behera uztearena. «Gauza batzuk bai eta beste batzuk ez, hori ezin da. San Joan festak bertan behera geratu dira». Eta San Joan sua ere ez egitearen inguruko erabakiarekin lotzen du alkateak. «Sua ere programazio ofizialean 1939 edo 1941etik aurrera hasi zen sartzen. Urtero egin da eta aurtengoa izango da lehenengo aldia egingo ez dena, ordutik. Modu sinbolikoan leku batzuetan egitea erabaki dute, baina hemen ez. Zerbait egiteak jendea

«Jaiak garrantzitsuak dira, baina orain osasuna bermatu behar da eta hori inportanteagoa da»

erakarriko du eta beraz, ez dugu programatu. Gure helburua da jende pilaketarik ez egotea».

Hala ere, herriko koadrila zenbaitek hartu dituzte lekuak jatetxe eta elkarteetan, koadrilen egunean bazkariak egiteko. Udala horren jakitun da, festarako gogo dagoela, eta ardura pixka bat sortzen die. «Aste asko egon gara etxean sartuta, giza harreman gutxiarekin. Udara hasiera da eta San Joan garaia. Konturatu gara hasieran, konfinamenduan geunden bitartean, jendeak oso argi zuela San Joanak bertan behera utzi behar zirela, baina deskonfinamenduan dauzkagun datuekin ematen du erlaxatzen ari garela».



San Joan jai zoriontsuak!

Garajeak, merkataritza-lokalak eta bulegoak salgai jada emandako gure sustapenetan

Informazioa

943 42 95 21 | www.etxeonenak.com



Garajeak salgai

«Kezka sortzen digu, jendeak pentsatzea normaltasunean gaudela dagoeneko»

Inkonszienteki, jendea normaltasunean bizi gaitezkeenaren sentsazioa sortzen zaio, Lertxundiren ustetan. «Horrek kezka sortzen digu. Horregatik erabaki dugu San Joanak bertan behera uztea. Horregatik eskatzen diogu jendea arduraz jokatzera. Herritarrek gogo daukate eta ulertzen dugu, baina ez gaude normaltasun batean bizitzeko egoera batean».

Tabernek ez dituzte ordutegi bereziak izango. «Udarako ordutegi normala izango dute. Egia da udaran, neguan baino ordutegi luzeagoa izaten dutela. Horiek, Jaurilaritzak jartzen dituen ordutegiak dira, ez daude Udalen esku. Tabernarekin bilera bat egin berri dugu, eta adierazi zaie San Joanik ez dagoela, ez dagoela festarik, eta beraz ordutegi berezirik ez dago».

Tabernariak asteburuetan ordutegi bat izaten dute eta aste egunetan eta festa egunetan luzeagoa, «beste herrietan bezala, udarako beste momentu bateko berdina izango dute».

Kaxkoko bizilagun batzuen kezak iritxi dira azken egunetan komunikabideetara eta horren inguruan Lertxundi alkatearen esanetan (pasa den asteko asteazkenean egin zen elkarrizketa) horren ezagutzarik ez du. «Argazkiren bat ikusi dut, baina ezin dut ezer esan. Argazki horretan ikusten da jende pilaketa bat dagoela, baina ez dakit zergatik den. Ez dakit arauak bete diren edo ez, hori tabernarekin egingo dudana bileran hitz egin behar dut. Horrelako pilaketak leku desberdinetan gerta daitezke eta saihestu egin behar dira».

Diru sarreretan ere eragina izango du Koronabirusak, 6 milioiko inpaktua 2020ko aurrekontuan

Koronabirusaren krisiak ez du bakarrik eragin festetan. Diru sarreretan ere suposatuko du murrizketa. Zaharren egoitzan jarri ditu indarrak Udalak, lehentasuna egoiliarak ongi egotea izan baita. «Behar zen guztia egin da eta hori kudeaketa publikoak

bermatzen du. Zehazki datuak ez dakizkit, baina ekainera arte 300.000 bat mila euroko igoera egon da pertsonaleko gastuan bakarrik. Argi genuen lehentasuna zein zen, bertakoak babestu eta ongi egotea».

Maiatzean jakin zen Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalen finantziazioan erabiltzen duen diru funtsa murriztuko duela 107 milioi eurotan. Erabaki horren aurrean Lertxundiren kritika formen inguruan da. «Komunikabideen bitartez jakin dugu». Udalak ulertzen du krisi baten aurrean dagoela gizartea eta erakunde publikoak diru gutxiago izango dutela kudeatzeko. Horregatik Aldundiari kritika formetan egin da. «Ofizialki oraindik ez dakigu zenbat gutxiago izango dugun».

Diru sarreraren parte garrantzitsuenetakoa izaten da eta «3,5 milioi euro gutxiago izango dituela Hernaniko Udalak, 2020an, kalkulatu dugu. Honi gehitu behar zaizkio eman diren zerbitzuak herritarrei ez zaizkiela kobratu, gehi gastu extrak eta egin diren inbertsio desberdinak merkataritza indartzeko... honek denak suposatuko du aurtengo 6 milioiko inpaktua bat 2020ko aurrekontuan».

Udalaren ekonomia oso saneatua dago Lertxundiren hitzetan «gestio on bat egin delako urteetan eta horri erantzun ahal izan diogu». Hala ere, inpaktua ez da bakarrik 2020an izango. «2021ean ere badakigu murrizketak etorriko direla Aldunditik krisi egoeran gaudelako. Lehentasunak aldatzea suposatzen du, aurrekontuak errebisatzea, egoera berrira egokitu eta behar berriei nolabait ere erantzun ona ematea».

Aldaketa guzti hauek; alkate izatera iristea orain urte bete, eta krisi hau kudeatu beharrak ez dute aldatu alkate hernanitarra. «Berdina izaten jarraitzen dut. Nabaritzen dudana da jendea gehiago hurbiltzen dela eta ardura gehiago duela. Alkateak herritarrengandik gertu gaude, agian ez beste mailako politikarien kasuan, baina bai gure herrietako politikan», nabarmendu du Lertxundik. **K**

«Oso pozik gaude, krisian, zaharren egoitzan egin den kudeaketarekin»

Xabier Lertxundi alkateak azpimarratzen du ez dela positiborik egon eta «langileen esfortzua goraipatu nahi dut, beraiei esker izan da».

HERNANI ZAHARREN EGOITZA

Koronabirusak kalte ikaragarriak sortu ditu Munduan zehar eta zaharren egoitzak izan dira kaltetuenetakoa, kaltetuenak ez esatearren. Hernaniko zaharren egoitza salbuespenetako bat izan da. Ez da kasu positiborik egon bertan, ez eta hildakorik. Horretan, Udalak egin duen kudeaketa ezinbestekoa izan da Xabier Lertxundiren esanetan. «Aurretik hartu ziren erabakiak erabateko eragina izan dute. Langile guztiak egin duten esfortzuaren emaitza da. Argi dago».

Sintomak agertzean isolatu egiten zen egoiliarra. «Zaharren egoitza batean arnas arazoak edo sukarra agertzea normala da eta hori gertatzen zenean prekaizio neurri guztiak hartzen ziren».

«Kudeaketa publikoak baliabide gehiago izan ditu birusari aurre egiteko»

Arriskua birusa kanpotik sartzearena da eta hor «oso zorrotzak izan gara hartutako neurriekin eta zorrotz bete dituzte langileek. Beraiei esker eman behar zaizkie. Oso pozik gaude gainera ikusita beste herri batzuetan zer ger-

tatu den eta zer egoera latzak bizi diren».

Hernaniko zaharren egoitza Udal Patronatuak kudeatzen du eta horren garrantzia ere aipatzen du. «Baliabide gehiago izan ditugu. Oso azkar etorri den birusa izan da eta erabakiak ere azkar hartu behar ziren. Materiala ere eskasa edo urria izan da. Udal guztiak egin duen esfortzua izan da sail guztiak elkarlanean jarri materiala biltzeko eta zaharren egoitzara bideratzea. Gurean moldatu gara denen kolaborazioarekin. Beste erakundeetatik materiala oso eskas etorri da».



jaietan, beti zurekin!



Koldoeta Aina

Entsalada
Kostila patatekin
Postrea
Sagardo botila

22€
Larunbatean
enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

«Jendeak oso gertuko sentitu zuen Kronika hasieratik, eta horixe zen gure helburua»

«Oso modu prekarioan eta auto-formakuntza asko eginez», jarri zuten martxan Kronika, orain 20 urte, Aritz Zerainek, Jexux Mari Irazuk eta Unai Agirrek; eta berehala batu zitzairen Eñaut Agirre. «Poz haundia» ematen die martxan ikusteak. Hasierako garaiak gogoratu dituzte.

URUMEA KRONIKAK 20 URTE

«Kronika martxan jarri genuenean, aurreneko San Joan haietan, gogoratzen dugu batetik ilusio izugarria genuela; eta bestetik, bukatzen ez ziren egunak zirela. Oso intensoa izan zen, baina oso polita», aitortu dute Unai Agirrek, Aritz Zerainek eta Jexux Mari Irazuk. Hiruen artean jarri zuten martxan Hernaniko Kronika, eta hiruak izan ziren herri komunikabidearen gidari, aurreneko urte haietan, Eñaut Agirrerekin batera; hila-bete gutxira batu zitzairen bera.

2000 urteko ekainaren 23an argitaratu zuen aurreneko alea Hernaniko Kronikak, San Joan bezpera egunean: «pentsatu genuen egun ona izan zitekeela, martxan jarri eta jendearengana iristeko. Pixka bat kontraesankorra ere bada, egun horretan jendea ez delako prentsari begira egongo; baina sinbolikoa zen, Hernanirentzat hain garrantzitsua den egun horrekin ateratzea», azaldu du Zerainek.

«Nahiko estresatuta» aritu ziren aurreneko ale hori osatzeko, «gau eta egun lanean», eta gaueko 23:30ak aldera bukatu zuten aurreneko Kronika hura: «sentsazio emozionantea izan zen paperean ikustea», diote.

«Aurreneko Kronika hura ikusteak ia hotzikara ematen du orain; ezjakintasunetik egin genuen. Hasiberriak ginen, eta

pixkanaka joan ginen garatzen», onartu du Unai Agirrek. Baina ez dute ahaztuko, Kronikak hasieratik izan zuen harrera ona: «uste genuena baino zabalkunde haundiagoa izan zuen, eta inguru erdaldunetara ere oso ondo iritsi zen», dio Irazuk.

«Ulerterrazza izatea lehenetsi genuen, eta Hernaniko errealitate oso desberdinen ispilu izaten saiatu ginen»


Erdaldunengana ere iristea, ordea, ez zen kasualitatea izan: «ulerterraztasuna lehenetsi genuen. Errazteko joera hartu genuen, erregistro aldetik, esaldiak antolatzeko garaian, eta idazteko moduan», dio Irazuk. «Ezagutzen genuen Hernaniko egoera soziolinguistikoa, eta guztiengana iristeko bidea errazten saiatu ginen. Auzoetara ahalik eta gehien gerturatu, eta Hernaniko errealitate oso desberdinen ispilu izaten saiatu ginen».

«Ahalegin berezia egiten genuen, normalean ateratzen ez ziren horiengana iristen», gaineratu du Unai Agirrek.

Eta Zerainek gaineratu: «argi ikusi genuen berehala, herriko ahalik eta talde gehienetara iritsi behar genuela»

«Ideia batekin sartu ginen, baina pixkanaka konturatu ginen egin zezakeen bidez»

Dobera Euskara Elkarteak ikusi zuen beharra, euskerazko he-



Eñaut Agirre, Aritz Zerain, Jexux Mari Irazuk eta Unai Agirre, Kronikaren aurreneko urteetan, bulegoan.

rreri komunikabide bat martxan jartzeko; eta taldean aurkeztu behar ziren proposamenak, horretarako. «Irazuk eta Unai aritu ziren hasieran, eta nirekin jarri ziren harremanetan gero, kudeaketa eta publizitatea lantzeko. Ni Berriak elkartearen bileren lanean, eta garai hartan ez genuen harreman askorik, bertso eskolan ere hasiberria nintzelako», dio Zerainek. «Oso egokia iruditu zitzaigun Aritz, kudeaketaren eta publizitatearen ikuspuntua emateko. Eta halaxe izan zen gero», nabarmendu du Unai Agirrek.

Hiruen artean landu zuten dena: publizitatearen arloan zer egin, nolako idazkera erabili... «Ordu asko sartu genituen,

baina guk bakarrik ez, lan asko egin zuen gu enderezatu nahi izan gintuen jendeak ere. Ideia batekin sartu ginen, baina pixkanaka konturatu ginen zein bide hartu zezakeen horrek».

Onartu dute, kazetaritzaren ezagutza haundirik ez zutela, eta «intuizioari segika» aritu zirela askotan. «Kronika gaur egun dagoen lokal horietan hasi ginen. Ordenagailu batzuk eta horrelakoak jartzeko, inbertsioa egin zuen Doberak, eta guk ikastaro azeleratu batzuk egin genituen Argiaren egoitzan, ezagun batzuen bitartez. Pare bat egunetan ikasi genuen Quark Xpress programa erabiltzen, Kronika egiteko. Aurreneko ale hura marketatzen, orduak eta orduak eman genituen! Nahiko prekario hasi ginen, auto-formakuntza asko eginez», kontatu du Zerainek, garai haiek oroituz.

Hasiera guztiak bezala, ez zen erraza izan, Kronikarena ere: «aurreneko urte osoan, eguneko ordu guztiak ematen genituen honen bueltan. Lagun koadrila bat ginen, eta zentzu horretan oso ondo; baina oso intensoa zen», dio Unai Agirrek.

«Askotan, jendearen aurreneko erantzuna izaten zen, 'nik zer daukat esateko?'»

Etxe barruko lanak ez ezik, kanpoan ere asko egin behar izan zituzten hiruek, baita martxan jarri aurretik ere: «auzo auzo eta taldez talde aurkeztu genuen

proiektua. Eta nahi genuen jendeak ikustea, berriak jasotzea bakarrik ez, bere berri ematea ere bazela asmoa. Beraientzako tresna bat sortzen ari ginela erakutsi nahi genien, eta irakurle pasibotik aktibo izatera pasatzea nahi genuela. Prentsa irakurtzen duzu, eta zure burua hartzaile bezala ikusten duzu; baina ez zara kontziente, zu ere izan zaitezkeela berri emaile. Zuretzako leku bat ere badela herri komunikabidea. Askotan, jendearen aurreneko erantzuna izaten zen, *nik zer daukat esateko?* Nahi genuen konturatzea, beraien kontuak ere izan zitezkeela notizia», diote.

Kronika paperean ikustearekin batera aldatu ziren ideia horiek: «oso harrera ona izan zuen. Oso gustura hartu zuen jendeak, eta oso gertuko sentitu zuten, eskuan hartu zutenean. Horixe zen helburua. Ez zeuden ohituta, hain gertuko hedabide bat edukitzeraz, eta berehala ikusi zuten tresna bezala, beraientzako ere baliagarria».

«Kronikak aukera ematen dizu barru-barrutik ezagutzeko, bestela axaletik ezagutzen dituzun mila zoko»

Harrera on horrek ahalbidetu zien, hortik aurrera, beste Hernani bat ezagutzea: «guk ezagutzen genuen Hernanik, alde haundi xamarra zeukan orduan ezagutu genuenarekin. Saiatu ginen Hernaniko aniztasun ho-

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33**
(Agustindarren plaza, 4)

EGURALDIA

GAUR

Bero egingo du gaur, bereziki barnealdean, kostaldean brisa sartuko baita. Zeru garbi egongo da, baina arratsaldean bero-lainoak sortu daitezke mendi inguruetan. **Min.14° / Max.29°**

BIHAR

Berdintu jarraituko du bihar ere, tenperatura altuekin; baina baliteke pixka bat jaistea kostaldean. Gainera, lainotuz joango da pixkanaka, eta ekaitzak ere jo dezake barnealdean. **Min.19° / Max.27°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

rrengana iristen, eta horretatik edaten. Eta uste dut asmatu gennuela», kontatu du Irazuk.

Idea horretan sakondu du Agirrek: «Kronikak aukera ematen dizu barru-barrutik ezagutzeko, bestela ezagutuko ez zenituzkeen mila zoko, edo axaletik ezagutuko zenituzkeenak. Ni hernaniarra naiz betidanik, eta Kronikan egon nintzenean ezagutu nuen Hernani. Beste Hernani bat ezagutzen duzu, benetako Hernani».

Eta zokoetara bakarrik ez, jendearengana ere iritsi ziren: «asko gustatzen zitzaigun jendearekin egotea eta jendea ezagutzea, eta lagun asko egin genituen. Ikusi zutenean zein zen gure jarrera, ateak ireki zizkiguten toki guztietan. Eta gurekin hain konforme ez zegoen jendea ere erakartzen saiatu ginen. Dementzako izatea nahi genuen, baina hori ez da esan behar, egin baizik. Pixkanaka lortu genuen, pastela haunditu eta herritar gehienak egotea Kronikan», diote.

«Idazkerarekin, eztabaida haundiak izaten genituen»

Aurreneko urte «intenso» haren parte dira, idazkeraren inguruan izan zituzten eztabaidak: «eztabaida haundiak izan genituen, eta oso intensoak izaten ziren egunak, ordu asko sartuta; baina oso polita izaten zen, eta asko ikasi genuen», dio Unai Agirrek. «Gu gazteak ginen, eta gure ikuspuntua geneukan. Nahi genuen zer bait, publiko guztiarengana iritsiko zena, eta aldi berean, euskera aldetik zer bait aportatuko zuena. Euske-

«Herrian horrelako komunikabide bat izateak, urrea balio du. Aukera asko dauzka herri komunikabide batek, baina denen babesa behar du. Eta Hernanin, lortu du toki haundi bat»

ra batua izan behar zen, baina Hernaniko jendeak oso gertuko sentituko zuen idazteko modu bat. Askotan hori ximpletasunera jotzea izaten da, baina ximpletasun hori bilatzea zaila da».

Eztabaida horietan lantzen zuten, esaterako, nola idatzi titular bat, erdaldun batek ere ulertu zezan. «Horretan lagundu ziguten Pello Zubiriak, Xabier Etxeberriak eta beste hainbatek; baina bereziki asko zor diogu Jexux Eizagirreri. Berarekin, ikastaroak eta guzti egiten genituen, gurekin egoten zen beti hemen», dio Unai Agirrek.

Eztabaida eta ikastaro haiek gogoan ditu Eñaut Agirrek ere: «niri asko gustatzen zitzaidan hori, sortzea euskera eredu bat, denek ulertuko zutena. Eta egunero izaten genuen ikastaro bat Jexuxekin. Zuzentzera etortzen zen, eta sekulako errepasoa ematen zigun, bata ez zegoela ulertzerik, besteari buelta bat emateko... Ulertzeko erraza izatea bilatzen zuen. Ximplea, baina aldi berean ederra».



Ama-alabak Kronika irakurtzen, aurreneko urte haietan. Oso harrera ona izan zuen hasieratik, herritarren artean.

Unai anaiaren baja kubritzeko hasi zen kazetari bezala Eñaut; eta ondoren, publizista bat behar zutela eta, bere burua aurkeztu zuen, «bertan lanean jarraitu nahi nuelako. Niretzako oso lan polita zen, eta sekulako proiektua iruditzen zitzaidan hasieratik, oso gertutik ezagutu bainuen sorrera».

Ordura arte, Aritz Zerain aritu zen publizitatea lantzen bereziki, «denek denetik» egiten zuten arren: «lan haundia egin behar zen, baina gutxi esploratutako terreno bat zen, eta gertutasun horrekin lotuta, jendeak ikusi zuen bere aletxoak jartzeko aukera, batetik; eta herritarrengana iristeko tresna interesgarri bat, bestetik. Hori bai, herria goitik behera *pateatu* behar izan nuen, eta batzuk nire aurpegiarekin aspertu ere egin-

go ziren! Baina elkar elikatzen genuen, komertzioek eta Kronikak», kontatu du Zerainek.

Proiektua egonkortzearekin batera, pasa ziren asteen bost aldiz argitaratzetik seitan ateratzera, egunero gero, asteburuetan orrialde gehiago ondoren, webgunea ere bai... «Hasieran, informazio asko geneukan, eta orri bakarra izaten jarraitzen genuen. Bakoitzari nahi baino gutxiago eman behar izaten genion, aniztasuna bilatzeko», nabarmendu du Irazuk.

«Horrelako proiektuetan, gorabehera haundiak izaten dira. Eta egon da jendea asko babestu gaituena, baina baita gurekin oso haserre egon dena ere, eta hori kudeatzen jakin behar da. Beste herri komunikabideetatik esan ziguten, alderdi guztiak haserre izatea, ondo ari zaren

seinale dela. Eta lortu genuen hori, momentu batean», dio Unai Agirrek.

«Zaila da horrelako proiektuak martxan jartzea, baina eustea oraindik ere zailagoa»

Aurreneko Kronika haren 20garren urteurrenean, «poz haundia» ematen die lauei, Kronika martxan ikustek: «proiektuak martxan jartzea zaila da, baina eustea oraindik ere zailagoa. Herrian horrelako komunikabide bat izateak, urrea balio du», dio Irazuk. Eta Unai Agirrek gehitu: «kanpotik ez dakit nola ikusten den, baina barrutik badakizu zer den egunerokoa kudeatzea, eta ez da erraza. Aukera haundiak dauzka herri komunikabide batek, baina denen babesa behar du; eta Hernanin, lortu du toki haundi bat». **K**

Ondo pasa San Joan jaiak!

dago

MEKANIKA KARROZERIA LEHIAKETAK

943 330 665 Akarregi 2-B Hernani www.dagomotor.com

Gora San Joan!

otano

inmobiliaria

Irrigoenea Okindegia. Lizeaga Kalea 1 behe. Hernani Tel. 943 331 725

Peña Okindegia. Kale Nagusia 19. Hernani Tel. 943 552 398

Sulabe. Hernani Tel. 943 554 954

sulabe

Ogirik beroena

Eraman zure mahaira Sulabe ogia

www.sulabe.com

Zorionak Hernani!

ONDO PASA SAN JOAN JAIEK!

iparrao

sukaldeak

Ibarluze poligonoa, 7 · Hernani www.iparrasukaldeak.com t. 943 556 760

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

CEPA Hernani HHI

Helduen hezkuntza

Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte

Matrikula egiteko bi modu:

☎ 943 33 53 18 ✉ 012076aa@hezkuntza.net

Ordutegia: 10:00 - 14:00

- DBH-ko TITULUA lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure Ikasketak jarraitu
- Atzeritarrentzako gaztelera

Kronikak eta San Joanek 20 urte eskutik, mende berriko aurreneko txupinazo hartatik

2000 urteko ekainaren 23an argitaratu zen Hernaniko Kronikaren aurreneko alea, San Joan bezpera egunean. Jaiak ziren gai nagusia estreinako 'paper' hartan, eta Tiburtzio Odriozola eta Gazte Asanblada protagonista.

URUMEA KRONIKA

Gaur 20 urte ospatu ziren XXI. mendeko aurreneko San Joanak; eta gaur 20 urte hasi zuen bere ibilbidea Kronikak, San Joan egunaren bezperan. Ordu-tik, elkarrekin egin dute bidea, San Joan jaiek, Hernanik eta Kronikak. Hernaniarrentzat bezala, zita seinalatua izan dira festak, Kronikarentzat ere, eta urtero izan du zer ospatua, gainera, egun horietan.

Aurten, zeresanik ez: urteurren borobila, 20garrena. Festarik gabeko urteurrena izango da, ordea. Jendez betetako ekitaldirik gabekoa, kalejira alairik gabekoa... San Joanetako egun bereziak nola ospatu berrasmatzekoa, azken finean.

Blusak eta zapiak bezala kalera Kronika ere, San Joan bezperan

Ostirala zen 2000ko ekainaren 23 hura. Ezin egokiagoa, aste-burua gainea, festak hasteko: gauean luzatzeko batere kezkarik gabe. Eta goizean goiz, herri-

tarrek bezperatik prestatutako blusak eta zapiak bezala, kalera atera zen Kronika ere, aurreneko alearekin.

Estreinako bi orrialde haieran, bere testu eta argazkietan, San Joanak ziren protagonista, ezin zuen bestela izan. Dena San Joanetarako prest zegoela zioen aurreneko albisteak, eta segidan, jaietako omenduei elkarriketa bana: txupinazoa bota behar zuen Tiburtzio Odriozolari eta Gazte Asanbladakoei.

Odriozolari buruzko lau datu esanguratsu bezain selebre ageri ziren bere argazkiaren ondoan: 77 urte lehenago jaio zela Errepublikaren egunean; Patxi izenez zela ezagunagoa, aitaren izena hartuta; bonbero ez izana zuela frustrazioa; eta herrian egindako lanagatik jasoko zuela omenaldia. Jon semearekin ageri zen argazkian, eta testuan, Santa Agedako eta San Joan bezperako erronden berreskuratzailer izan zela: «Ohiturak herriak nahi duen bitartean jarraituko dute bizirik», zioen Tiburtziok, bertan.

Gazte Asanbladari dagokionez, omenaldiaren poza eta Olinpiaden arrakasta nabarmentzen ziren, eta esaldi bat: «Gure meritua? Egoera zailetan ere gogor eusten jakin izana».

Aurreneko Kronika haren atzeko aldean, berriz, Tilosetako txosnagunearen prestaketa zen ikusgai, eta baita esku pelotako albiste bat ere: Herriarteako Txapelketaren semifinalen joaneakoa jokatu behar zuen Hernanik, Soraluzen.

Ekainaren 23ko hura ez zen izan, dena den, *Hernaniko Kronika* goiburuarekin herriarrek eskuan hartu zuten aurreneko *papera*. Izan ere, bi aldiz gutxienez argitaratu zuten 0 alea, proba modura, aurretik: maiatzaren 28an, eta ekainaren 6an.

20 urtetako San Joanak, argazkitan

Gehiago edo gutxiago, aldatu egin da Kronika, 20 urte hauean; baina San Joanek toki berezia izan dute beti, eta argazki sorta zabal-zabala dauka gorde-ta Kronikak, urteroko jaiekin. Horietako batzuk bildu ditugu datozen orrialdeetan, urte bakoitzaren erakusgarri izateko. Aurreneko bi urteetakoak, zoritxarrez, paperean argitaratu bezala aurkitu ditugu soilik, txuri-bel-tzean. Urte batzuk badituztela erakusten du behintzat! **K**

HERNANIKO
kronika
2000ko urteko ekainaren 23a
ostirala.
Alea: 1a

**Gora San Juan,
ongi etorri gazteak!!**

24 milioiko fidantza ordaintzean hemen dira 18 gazteak. Dena prest dago festa hasteko. Tiburtzio Odriozolak botako du txupinazoa.

Dena gidatzen idatzia zegoela dirudi, inork ezar utzirik ez badu ere. Oritxe denak burura oraitxe denak kalera: badirudi San Joanetarako azken utxi-lotak etxean izango ditugula: 24 milioiko fidantza dago kokoa. "Eskudutun gainera".

'AZE JUERGAK'
Konpartsa, akelarrea, txoz-nak, famili bazkaria... dena lotuta dago.

30 TALDE
JAI BATZORDEAN
Lurdes Etxeberria kultura zinegotziak inor ez dela baztertu nabarmendu du. Taldeek berriz, jai-batzordeak herri protagonista eskuratu izana.

Lastima, aurten ere, batzuk "urrutitxo". Argazkiek ikusi beharko dute txupinazoa. *Ez Tiburtzio, su etxetue-gauri. Punt!*
On egin.

Omendua:
Tiburtzio Odriozola - Gazte Asanblada

ZEIN DEN?

- Orain 77 urte jaioa errepublika egunean.
- Patxi izenez ezagunagoa. Aitaren izena eraman du urteetan.
- Bere frustrazioa bonbero ez izana.
- Herrian egindako lanagatik jasoko du omenaldia.

ERRONDEN BERRESKURATZAILA
San Joan eta Santa Agedako errondek, historia luzea dute Hernanin. Tiburtzioren izenak leku berezia mereti du hor tartean. Galduta geratu ziren ohiura hauek, gerra ondoren berreskuratu zituzten herri eta beste hainbatek. "Hasiera hartan jende asko joan

ohi ginen errondetara, Francoren garaia zen eta errebidakzio kanpua zuten".

HERRIAN LAGILE
Gara hartan eus-kalazale zenari denotatik egitea tokatzen zitzaion. Agian, horregatik parte hartu izan du bertso saioak antolatzen, abekhar-tran... eta nola ez Urumea ikastola-ren sorreran.

Tiburtzio Odriozola
"Ohiturak herriak nahi duen bitartean jarraituko dute bizirik"

Nekane Igarza
"Gure meritua? Egoera zailetan ere gogor eusten jakin izana"

GAZTE ASANBLADA:
'ILUSIOA ETA GOGOAREN BILGUNA'
Asko puztu du jai batzordearen omenaldiak. Bost urte-tan Udalerik, bost urte be-ri-rik ez omen du jaso eta.

EZTA SIDNEY-EN ERE
Herri Olinpiadekin jo du goia: herri osoa dantzan. Hanka, beko olo suduren bidez pasako zuen berea, baina gauza handirik ez gozatu dutenaren aldean.

Aurten goak ondu-erdi oten behar izan du. Hala ere, Hogei-ta bosetxo bazkaria egin egin-go da, eta sari eta guri gaine-ra. Aurrera begira? Gaztegunea arnasberritu eta Antsoz. **J**

KixKal
Taberna
Tel.: 943 55 66 56

2000 urteko ekainaren 23an argitaratu zen Hernaniko Kronikaren aurreneko alea, ostiralarekin. San Joan jaien hasierari eskaini zion albiste nagusia estreinako edizio hark, eta Tiburtzio Odriozola eta Gazte Asanblada ziren protagonista, urte hartako festetako omenduak. Alearen atzeko aldean, berriz, txosnagunearen prestaketa lanak, eta esku pelotako Herriarteako Txapelketa.

CALZADOS
OINETAKOAK

EMAKUME, GIZON
ETA HAURRAK

IRIGOYEN
Ondo pasa San Joan jaiak!

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI

FAGOLLAGA JATETXEA Ixak

FAGOLLAGA
-19-

"Gure lanak besteek disfrutatzeke balio badu, konformatzen gara! Ondo pasa San Joan festak!"

Ereñotzu auzoa, 68-69 // 943 55 00 31

ARRIATZU BARAZKIAK

"Aurten modu ezberdinean bada ere, Gora San Joan eta Gora Hernani. Elkar zainduz, gozatu"

Zapa kalea, 41 // 688 688 691

apaindura
OIHALA
hogar

Gora
San Joanak!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87
HERNANI

KORAPILO ANIMALIEN ILEAPAINDEGIA
Ainhua, Kora, Lobo eta Maribel

"Lagunartean gozatu egun berezi hau. Ondo pasa San Joan festak!"

Victor Hugo kalea, 3 // 943 04 83 98

TXOKO KAFE-BAR Ibai eta Mila

"Giro ona sortu dutenekin gozatzeta, hau da San Joanetan ondo pasatzeko sekretua. Gora San Joan!"

Andre kalea, 68 // 943 50 62 23

2000



Urtez urte hartu dute erreleboa gazteek, Akelarrea egiteko. Irudiko gazte horiek, 20 urte zaharragoak dira gaur...



Koadrilen eguneko bazkarietan umorea da nagusi, bai gaur eta bai duela 20 urte.

2001



Axeri Dantzako kamixeta eta galtzak, berrituko ote zituzten behintzat...?



Jendetza bildu izan du San Joanetan, dantza sueltoen txapelketak.

2002



Etxeberriko haurrak Elkano kalean gora, danborra jotzen.



Tranbia eraiki eta Kale Nagusia gora igo zuen San Joan Konpartsak, 2002an.

UKERDI MERTZERIA Marian



Kale Nagusia 51 // 943 55 13 22

“Aurtengo jaiak ezberdinak izango diren arren, familiarteko bazkari batekin eta lagunekin ospatuko dugu. Zaindu eta Ondo pasa!!!”

AUA

IRIZAR
ARDOAK

Akarregi Poligonoak 3C,
20120 Hernani, Gipuzkoa

Tel.: 943 55 10 01/ 943 55 46 93
Email: irizar@irizarardoak.com

2003



Zaharren Egoitzako terrazara igo zen Beti Egarriak txaranga, eta dantzan jarri zituen bertako langileak.



Ostolaza II, 177 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen, Tiloseta jendez beteta.

2004



Nolako ikusmina ingurukoen artean, norbaitek suaren gainetik salto egitean!



Jende asko bildu izan da beti, udaletxeko arkupeetan, Hernaniko Musika Bandaren doinuak entzuteko.

SUHARRI
JATETXEA
ALBERTO RODRIGUEZ

Jauregi bailara, GALARRETA 20120 HERNANI

**SAN JOAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

GORA HERNANI!

943 33 56 95

<http://www.restaurantesuharri.com/>

RIOJA TABERNA

Kale Nagusia, 6. Hernani

San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu.
Ondo pasa herriko festetan!



2005



Gaztetxo bat aureskua dantzatzen, Plazan, herritar guztiak begira dituela.



Sekulako apar festa montatu zuten Biteri aurrean, 2005ean.

2006



Akelarrearen antzerkian parte hartu duenak, ondo gogoratuko du...



Goiz Eguzkin ere ez dute inoiz huts egin, San Joanak ekintza bereziren batekin ospatzeko.

2007



Herrialde ezberdinetako musika eta dantzekin gozatzeko aukera ere izaten da urtero, San Joanetan.



Goizuetatik etorri ziren 2007ko San Joanetan, Zahagi Dantza egitera.

GORRITI TABERNA

Donostiako Gorriti Tabernako lagunok San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu.
GORA SAN JOAN!



San Juan kalea, 3. DONOSTIA

943 42 83 53

Euskal Pizza



943 33 33 73

Larramendi, 3. Hernani

2x1

Lokalean bertan hartzeko

Ondo pasa San Joanak!

Pol. ind. Florida 142 Bj, Hernani.
 Tlf: 943 33 25 26 kybmobiliario@gmail.com

**NEURRIRA EGINDAKO
 SUKALDE
 ETA
 ARMAIRUAK**

ONDO PASA SAN JUAN JAIAK 2020!

2008



Gaupaseroak ez dira izaten, askotan, gidarien lagunik onenak... Nola hartuko ote zituen, Tren Berdearen gidari honek?



Mariatxien kantu eta doinu alaiek ere bisitatu izan dute Hernani, San Joanetan.

2009



Momentuan ez ziren konturatuko, baina hurrengo egunean... 'Zer ote dira zultoxo hauek alkandoran?'



Haur, gazte eta heldu, elkarrekin ibiltzen dira kalejiran, Koadrilen Egunean.

2010



Gutxitan egin du huts Plazako bertso jaialdian, Maialen Lujanbiok.



Gaur egun ez da idi-demarik izaten Plazan, baina jendetza elkartzen zuten, orain urte gutxi arte.

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Gora San Joan!!!

Orkolaga, 2 Tel: 943 33 59 08

Eukene
Jantzidenda

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

gurea
garagardotegia

Gora Hernaniko San Joan jaiak!

Argarain kalea, 2. Hernani Telf: 943 33 25 29

2011



San Joan bezperako errondarekin, bertsotan ematen diete ongietorria jaiei, urtero-urtero.



Igerilekua montatu zuten 2011ko San Joanetan, non eta Plaza Berrin!

2012



Danbor hotsek jarri diote soinu banda urtero, San Joan bezperako gau magikoari.

2013



Txikienek ere alaitu nahi izaten dituzte kaleak, trikitixa eta panderoak hartuta.



Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

f www.Facebook.com/urratshernani
@ urratshernani@gmail.com

**SAN JOAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

Aurten, San Juanak gogoan,
alpargatak **soinean**
eta alaitasuna **bihotzean**.
Gora Hernani! Biba gu!

2014



Ixo txarangak ere jarri ditu kantari eta alai herritarrek, erdipurdiko doinuekin bada ere.



Klasiko bat da, buruhandien aurrean gazteek osatzen duten 'barrikada'.

2015



Ederki pasatzen dute haurrek, aerorrunbarekin gorputza mugitzen.



Aizkolarien arteko leihak ikusmina pizten du beti, Tilosetako frontoian.

2016



Albokari eta pandero-jole gazteak, Plazara sartu berritan. Urtero izaten da aukera, albokaren doinu berezia entzuteko.



Su-ikuskizun bereziak izan dira gauetan, azkeneko urteotan.

Aliprox - Aliñamendi

Bertako produktuak dastatuz
herriko festak gozatuz
kalitatea eta jaiak bultzatuz
izan gaitzen denok
sanoak eta zoriontsuak buruz.

Gu zuek gabe
eta
zuek gu gabe;
Kanposantua !!

Ondo pasa
San Joanak !!

Kale Nagusia, 21 - ☎ 943 55 49 66

PINEDA

HARATEGIA

Ondo pasa
San Joan jaietan!!

943 55 16 43
KARDABERAZ KALEA, 32

IÑIGO
egur lanak
www.egurlanak.com
TEL. 699 729 205
inigo@egurlanak.com

Palak eta Grabatuak
www.barrenepalak.com
699 729 205
info@barrenepalak.com

ONDO PASA SAN JOAN FESTETAN!

2017



Sokan dijozenak bakarrik ez, Axeria ere bizkar eta ipurdiak berotzeko gogoz ateratzen da Axeri Dantzari!



Haurrek ere izaten dute aukera, ikuskizunetan parte hartzeko.

2018



Koadrilen arteko brindisak betetzen du Plaza jendez, txupinazoak bezainbeste.

2019



Incansables txarangarekin agurtu zituzten iazko San Joanak, urtero bezala, oraingoan bi urterako zela jakin gabe.

amher
HERNANIKO ELKARTE MULTIKUTURALA



SAN JOAN OSASUNTSUAK DENOI

Etorriko dira garai hobeak
elkarrekin egoteko eta ospatzeko

Mahuka

**Gora San Joan!!
Gora Hernani!!**

KARDABERAZ KALEA 28 943 333 639
HERNANI



ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

Errioguardako lagunok
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu.
Gora San Joan!!

www.erioguardaenea.eus

Iturriaga kalea,10 - Tel:(943) 33 02 91



20 urtez bidelagun bezero leialak izan ditu Kronikak egunero argitaratzea ahalbidetuz

Dobera Euskara Elkartearen egitasmo moduan gaur 20 urte argitaratu zen Kronikaren lehenengo alea eta urte guzti horietan hainbat iragarlek elkarrekin egin dute bide hau. Zorionak Kronika egiten laguntzen duten guztiei.

URUMEA KRONIKAK 20 URTE

San Joan bezpera Kronikaren-tzat oso berezia da, ez bakarrik Hernanin sortu zelako eta bertako festak egun horretan hasten direlako, baita egun horretan argitaratu zelako Kronikaren lehenengo alea, orain juxtu 20 urte. Beraz gaur urtebetze eguna ospatzen du, egunero Urumea bailarako txoko guztietara iristen den berri paperak. 20 urte ospatzeko modukoak dira eta horrenbeste urte irauteko den beharra ezinbestekoa da.

Horrexegatik, Kronikak eskerrak eman nahi dizkie Arano, Astigarraga, Ereñotzu, Goizueta eta Hernaniko herritar guztiei urte guzti hauetan hor izan direlako. Batzuk 20 urtetan eta beste batzuk urte gutxiagotan, baina denei eskerrak da gaur

egun Kronika den bezalako.

Bide hori eta garapen hori izateko guztion lana da beharrezkoa, eta aipagarriak dira 20 urtetan bidelagun izan diren iragarleak. Bezero fidel asko ditu Kronikak eta urte guztietan elkarrekin egin dugu bidea.

Erraz esaten dira 20 urte, baina urtero-urtero laguntza hori izateak egin du posible Kronika denetik etxetan edukitzea. Momentu zailenetan ere hor izan dira eta adibide esanguratsua da bizitzen ari garen azken osasun krisi honetan ere hor daudela eskutik heltzen elkarlanean, Kronika eta bere bezeroak.

Askok dira, agian batenbat ahaztuko dugu eta barkatu aldeztu aurretik, eta zoriontzeko urtebetetze egun berezi hau zuek zoriontzeko ere bada. Gure orrien artean genituen 2000garren ur-

tean: Catalana Occidente aseguru etxea, Itxaspe arraindegia, Brintza aholkularitza, Allianz aseguruak, Hator aholkularitza, Hernani Bidaiak, Adarraga pasteleria, Aralar taberna, Landaribar margoak, Mikel Armendariz edota Marife arraindegia. Oraindik ere hor jarraitzen dute eta Kronika denon artean egiten denaren adibide esanguratsua dira.

Hasiera hasieratik ez, baina aipamen berezia ere merezi dute bezero bezala urte asko daramatzaten merkataria edo bezeroak. 15 urte gutxienez egin dituzte gurekin ondorengoek: Amaia arrandegiak, Bikain okindegiak, Joxe Mari tabernak, Aitan Etxe tabernak, Oindi tabernak, Irubide jatetxeak, GSE aholkularitzak eta Peña okindegiak. Eta iragarki merkeetan Iñigo Royo masajista ezin ahaztu.

Hernani eta Astigarragako sagardotegiek ere bultzada handia eman izan diote Kronikari eta nola ez Antziola Ford kontzesionarioak, Etxe Onenak eraikuntza enpresak, Itxastele elektrogailuak, Amegar Etxe Tresnak, Tripontzi taberna jatetxeak...

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

MARI ARRANDEGIA
Nagusia 36 943 55 04 89
Orkolaga 17 943 55 27 41
HERNANI

2000. urtean bazeuden bezeroak Kronikan, gaur egunean ere iragarle direnak.

Kolaboratzaile bereziak ere izan ditu 2000garren urtetik eta hor aipatzekoak dira Dorronsoro okindegia eta bi funerariak: batetik Orbegozo eta bestetik Vascongoda.

Bazkideak, herritarrak eta instituzioak

Kronikaren familiaren parte dira denak, baita noski Doberako bazkideak, irakurleak eta informazio iturri nagusi diren herritarrak ere. Gaurko 20garren urtemuga den urtebetze da.

Guztion laguntza gabe ezin-

go litzateke Kronika argitaratu eta gogoratu beharreko beste iragarleak eta laguntzaileak instituzioak dira. Hasieratik; Hernaniko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia, eta proiektua Urumea bailarara zabaltzen zenean Astigarragako Udala, Ereñotzuko Auzo Udala, Aranoko Udala eta Goizuetako Udala.

Denen artean gutxienez beste 20 urte ospatuko ditugulakoan eskerrak eta zorionak Kronika egiten laguntzen duten guztiei. **K**

**Urtean zehar gure babesa zarete.
Kronika ere zuekin egiten delako, eskerrik asko.**

